



wiki- historiak

Artistek eta bitartekariak

kontatutako euskal inguruko arte historiak

www.wiki-historias.org

Wiki-historiak

Wiki-historiei buruz zerbait entzun al duzu?

Wiki-historiak Artearen Historia nola eraikitzen den genero ikuspuntutik ikertzeko asmoa duen proiektua da, sorkuntza historikorako era kolektibo berri bat proposatzen duena. Wiki-historien helburua artista eta bitartekari emakumeok euskal inguruko arte historiak era amankomun batean berregitea da.

Eta hori nola egiten da?

Hainbat elementuren bidez: wiki bat, tailer bat eta ekintza paraleloen bidez, esaterako, aurkezpen, batzar edota genero ikuspuntutik antolatutako bisita gidatuen bidez. Batzuk Historia deitzen dugun kontakizun uniboko eta subjektiboa nola sortu denari buruz pentsatzeko balio dute; beste batzuk, aldiz, tresna kolektiboak eskaintzen dituzte, gure etorkizuneko Historian bihurtu daitekeen narrazio pluralago bat elkarrekin eraikitzeko.

Baina, zergatik birplanteatu behar dugu Artearen Historia?

Egi unibertsal bezala transmititu diguten arren, Artearen Historiak mendebaldeko gizon zuriaren ikuspegiari lehentasuna ematen dion narrazio bat delako, hauek gozatu duten eremu publiko zein profesionaleko posiziotik eta hezkuntzak eman dizkien irizpide eta preferentzietatik abiatuta, Historia hori eraikitzeko baliabideak izan dituztelako. Hori dela eta emakumeak, beste giza talde batzuk bezala, leku murriztu eta bereizietara baztertuta geratu dira, eta gaur egun ere gizonezkoen pareko aztarnak uzteko arazoak dituzte.

Eta ez litzake hobea iraganean beharrean etorkizunean zentratzea?

Iragana orainaldia eta etorkizuna izan zen behin; eta historia, ohiturak edota tradizioak ulertzeko moduak ere orainaldia nola ikusten dugunaren gaineko eragin handia du. Eragin honen jakinaren gainean egotea ona da. Wiki-historiak iragana birbegiratzen du baina, aldi berean, etorkizunerako ikuspegi berri bat osatzeko aukerak aurkezten ditu wikiaren bidez.

www.wiki-historias.org

Zer da wiki bat zehatz-mehatz?

Wiki bat interneteko edizio partekatutako plataforma bat da. Beraz, pertsona bakoitzak bere ideia eta jakintzekin har dezake parte, eta beste partaide guztiek honen gainean editatu edo komentatu dezakete. Funtzio anitz izan ditzake, datu-basetik hasita, online elkarketa puntu batera arte.

Eta nolako da www.wiki-historias.org?

Wiki ireki bat da, zeinean denok gure erreferentziak, anekdotak, istorioak... sartu ditzakegun. Bere helburua genero ikuspuntutik momentuan momentuko artearen panoramarentzako plataforma moduan erabilgarria izatea da. Alderdi teorikoagoak ditu, erreferentzi testu edota artikulua kasu, eta beste pertsonalago batzuk, bizirik dauden artisten kontakizunak edo bere lana azaltzeko atalak bezala.

Wikian parte hartu dezaket?

Ahal izateaz gain, horretara animatzen zaitugu! Historia genero ikuspuntutik berrikusteko asmoa duen edonor gonbidatua dago. Kontutan izan wikiak elkarrekiko lan bat proposatzen duela, eta horrezkero jende guztiaren beharra duela; denok sortzen dugu Wiki-historiak edukiak sartzen ditugunean.

Gainera, esku hartzeko modu anitz daude; zuretzako garrantzitsuak izan diren erreferentziak eman ditzakezu, gertatu zitzaizkizun eta orain ahaztu diren gauzak kontatu, edo bestelako aukera asko. Bisita ezazu www.wiki-historias.org.

Baina ez dut inoiz wiki bat erabili. Jakingo al dut maneiatzen?

Wikia oso sinplea da, eta gainera administratzaileen laguntza eskatu ahal duzu zalantzak daukazun bakoitzean. Dena den, galdua sentitzen bazara, edo wiki batek sorkuntza historikorako aukerak nola eman ditzaken sakonago ikertu nahi baduzu, *Wiki-historiak historiatuak* tailerrera etor zaitezke.

Tailerra

Wiki-historiak historiatuak Trocóniz Fundazioak Portugaleten antolatutako tailer bat da, Haizea Barcenillak eta Saioa Olmok emandakoa. Honetan, balizko parte-hartzaileei Wiki-historiak proiektua aurkeztu eta hurbiltzeaz gain, Historia birpentsatzeko teknologia proposamen berriek eskaini ditzaketan aukerak aztertu nahi dira.

Teoria aldetik, Artearen Historiaren eraikuntza orokorrean zein ingurune hurbilean zehazki ikertuko dugu. Alderdi praktikoari dagokionean, wikia aurkeztuko da, bere lan egiteko modua, ematen dituen aukerak komentatu eta esku hartzeko moduak azalduko dira.

Tailerraren barne Bilboko Arte Ederretako Museora *Hemen nago* izeneko bisita kontatzen da ere. Honen bidez, tailerreko parte hartzaileek salbuespen moduan erakustaretoetan ikusgai ez dauden emakume artisten bildumako lanak bisitatu ahal izango dituzte, honela lan hauek sakonkiago ezagutzeko, eta bildumagintza eta Historiarekin duten erlazioa aztertzeko aukera izanez.

Tailerra generoa eta arte garaikidean interesatutako pertsonen zuzendua dago. Ez da beharrezkoa web 2.0ari buruzko aurreko jakintzarik izatea, azalduko diren nozioak oinarritzkoak izango baitira.

Datak: Tailerra: azaroaren 15 eta 22an, larunbatak, 10:30tik 13:30ra. Bisita: azaroaren 20an, osteguna, 18:00etatik 19:30ra
Hizkuntza: Gaztelaniaz.

Lekua: Portugaleteko Ikasgela Gaztea, Maestro Zubeldia kalea, z/g (metroaren sarreraren alboan, Portugalete geltokian).

Prezioa: Dohainekoa.

Izen-ematea: 94 495 61 95 telefonora deituz edo info@troconizsantacoloma.org helbidera mail bat bidaliz.

Kolaboratzaileak:



Babesleak:



Laguntzaileak:



Bisita gidatuak

Bisita hauek Arte Ederretako Museoaren bilduma iraunkorraren erakustaretoetan garatuko dira. Hauen bidez, emakumeek Artearen Historian jokatu duten papera eta izan duten presentzia aztertuko da. Honekin batera, bildumazalatasunak Historiaren eraikitze eta ulertzean izan duen eragina ere ikertuko da.

Programa honek museo bat ikusteko dauden aukera desberdinak zabaldu nahi ditu, kasu honetan emakumeen historiari eta errepresentazioan zentratuz. Honela, diskurtso aldean bat bezala agertu beharrean, Artearen Historia aukera desberdinez osatutako kontakizun anitzen bilduma bezala aurkeztu nahi da. Bisita gidatuaren formatua jarraituko duen arren, elkarriketarako denbora ere bereziki hartuko da kontutan.

Datak: azaroak 27 eta abenduak 4, ostegunak, gaztelaniaz, eta abenduak 11an, osteguna, euskaraz.

Ordutegia: 18:00tik 19:30 arte.

Lekua: Bilboko Arte Ederretako Museoa.

Prezioa: Dohainekoa.

Izen-ematea: 645705421 telefonora deituz edo wikihistorias@gmail.com helbidera mail bat bidaliz.

Wiki-historiak Haizea Barcenilla eta Saioa Olmok bultzatutako proiektu bat da, Trocóniz Santacoloma Fundazioa eta Arteleku-Gipuzkoako Foru Aldundiaren kolaborazioarekin. Bizkaiko Foru Aldundiako zein Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailen sostengua du, eta baita Portugaleteko Udala eta Bilboko Arte Ederretako Museoaren laguntza ere.

